

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5053

AGINDUA, 2024ko urriaren 27koa, Jaurlaritzako Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko zuzendarien esku uzten baita eragiketaren arduradunaren eginkizunak betetzea, interes-gatazkaren arriskua-ren analisi sistematikoaren ondorioetarako.

Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 4.2 artikulua bigarren paragrafoak kontratazio-organoari edo dirulaguntzak emateko organo eskudunari esleitzen dizkio eragiketaren arduradunaren eginkizunak.

Beraz, dagokion prozeduraren arabera, eragiketaren arduradun izatea Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari dagokio. Hala, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 5.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, sailburua da kontratazio-organoa, bai kontratu handietan, bai Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari dagozkion kontratuetan.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan dirulaguntza izendunak ematea dagokio, sailaren jardun-arloan (otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 5.5 artikulua).

Aipatutako HFP/55/2023 Aginduak eragiketaren arduradunari zer eginkizun dagozkion ezartzen du, hala nola aplikazio informatikoen erabilera xehatua (CoFFEE eta MINERVA), dokumentazioa kargatzea eta kudeaketa hutsarekin lotutako beste funtzio batzuk.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9.1 artikulua arabera, administrazio publikoetako organoek beste organo batzuei eskuordetu ahal izango dizkiete beren eskumenak, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira.

Kasu honetan, eraginkortasun, efizientzia eta arintasun administratiboko arrazoiak direla-eta, komeni da CoFFEE eta MINERVA aplikazioak erabiltzeko funtzioak eta horiekin lotutako beste kudeaketa-funtzio batzuk ohiko kudeaketatik gertuago dauden zuzendaritzako langileak betetzea, eta ez saileko titularrak. Horregatik, bidezkoa da langile horien aldeko eskuordetza bat antolatzea.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bigarren ebazpen-zatian aipatzen diren zuzendarien esku uztea eragiketaren arduradunaren honako eginkizun hauek, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan araututako interes-arriskuaren analisi sistematikoaren ondorioetarako:

– Eragiketaren erreferentzia-kodea (CRO) CoFFEE aplikazioan sortzen dela ziurtatzea (4.3 artikulua).

– Sartu MINERVA aplikazioan eta sartu CRO kodea eta informazioa (IFZ), prozeduretan esku hartzen duten pertsoneri eta eragiketako erabakitzaileei buruzkoa (4.4 artikulua).

– MINERVAn kargatzea interes-gatazkarik ez dagoela adierazten duten adierazpenak (4.4 artikulua).

– Bandera gorriak eragindako erabakitzaileari eta haren nagusi hierarkikoari jakinaraztea, abstenitu dadin [5. artikulua, b) eta c) letrak].

– Analisiaren emaitza MINERVAn bidaltzea proiektuen edo azpiproiektuen organo kudeatzaileei (edo haien baliokideari, entitate instrumentalen kasuan) [5. artikulua, c) letra].

– Analisiaren emaitza CoFFEEEn erregistratzen dela ziurtatzea [5. artikulua, c) letra].

– MINERVAn informazio gehigarria eskatzea abstenitu ez den kasuetan detektatutako arriskuei buruz, eta eraginpeko erabakitzailearen goragoko organoari helaraztea (6.2 artikulua).

– Iruzzurren aurkako dagokion batzordera jotzea, kasu jakin batean abstentziorik egin behar den adieraz dezan (6.3 artikulua).

– Interes-gatazkarik ezaren alegazio arrazoituari buruzko dokumentazioa CoFFEEEn kargatzen dela ziurtatzea (6.4 artikulua).

Bigarrena.– Eginkizun horiek honako pertsona hauek eskuordetu dituzte:

– Leire Corrales Goti, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko zerbitzu zuzendaria, Next Generation funtsen kudeaketaz arduratzen dena.

– Gorka Iturriaga Madariaga, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria.

Hirugarrena.– Eskuordetze hau edozein unetan ezeztatu ahal izango da agindu bidez.

Laugarrena.– Agindu hau dagozkion bitarteko ofizialen bidez emango da argitara, eta, nolana ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 27a.

Jaurlaritzako lehengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA.